

KALTE-ORDAINAK ETA AUZITEGI GORENEKO SENTENTZIAK

Zenbateko kalte-ordaina dagokigu lan egindako urte bakoitzeko?

Nork zer dioen:	Ordezkapen kontratu bat bukatzen denean...	Lan metaketa kontratu bat bukatzen denean...
Haurreskolak Partzuergoak	0 egun	0 egun
Langileen Estatutoak 49. artikuluan	0 egun	12 egun
Auzitegi Goreneko sententziak	20 egun	20 egun

Goiko koadroak adierazten duen bezala, Haurreskolak Partzuergoak ez du betetzen Langileen Estatutoak dioena eta are gutxiago Auzitegi Goreneko azkenengo sententziek diotena. Azken asteetan kontu honen inguruan sortu diren zalantzak eta galderak ugariak izan dira, eta zerbitzu juridikoekin gaia aztertzen egon eta gero, steilas sindikatuak jakinarazi nahi dizue:

2015eko irailaren 14tik aurrera amaitu diren ordezkapen eta lan metaketa kontratu guztiek 20 eguneko kalte ordaina jasotzeko aukera dute.

Sententzietako batek dionaren harira, abuztuan LALean eten ziren LEP arteko kontratuek langile finkoen trataera berdina izan behar dute. Honek **steilasek** aurreko bi urteetan LALaren negoziazioan mantendu duen jarrera berretzen du. Beraz, kontratuaren etetea bera erreklamatu ez duen langileak, 20 eguneko ordaina jasotzeko eskubidea duela ondorioztatzen da sententzietatik.

Egoera honetan aurkitzen bazara edo egotekotan bazaude, gurekin harremanetan jarri zaitzke kalte ordainaren eskaera aztertu eta zer egin erabakitzeko. Gogoratu urte beteko epea dagoela kontratua bukatu zenetik prozesua hasi ahal izateko. Ez galdu zure eskubidea eta aukera epea pasatzen uzteagatik.